

Urteko 9. Igandea (B)

LEHENENGO IRAKURGAIA

Izan gogoan zeu ere esklabo izan zinela Egipton.

Deuteronomioa liburutik 5, 12-15

«Gorde larunbata, Jaunari sagaratuz, Jaunak zure Jainkoak agindu bezala. Sei egunez egingo duzu lan eta zeure eginbehar guztiak burutuko; baina zazpigarrena atsedeen-eguna duzu, Jaunari zeure Jainkoari sagaratua. Ez egin inolako lanik egun horretan, ez zuk, ez zure seme-alabek, ez zure morroi-mirabeek, ez zure idi, asto zein beste abereek, ezta zure hirietan bizi den etorkinak ere; horrela, zure morroi-mirabeek ere, zeuk bezala, atsedeen hartu ahal izango dute. Izan gogoan zeu ere esklabo izan zinela Egipton, eta Jaunak zeure Jainkoak atera zintuela handik ahalmen handiz eta esku indartsuz. Horregatik agindu dizu Jaunak zeure Jainkoak atsedeen-eguna gordetzeko.

Jaunak esana.

SALMOA

Salmoa 80, 3-4. 5-6ab. 6c-8a. 10- 11 ab (.W.: 2a)

R.

Egin poz-oihu Jainkoari, gure indarrari.

Ekin soinuari, jo danbolina,
zitara gozoa eta harpa.

Jo turuta ilargi berrian,
eta ilargi beteko gure jaiegunean . **R.**

Horixe da Israelen legea,
Jakoben Jainkoak erabakia,
Joserren familiari ezarritako araua
Egiptotik irten zenean.. **R.**

Mintzo ezezaguna entzuten dut :

«Bizkarretik zama kendu nizun,
zure besoak lan astunetatik askatu.

Zapaldurik zeundela, deiadar egin zenidan,

eta libratu zintudan.. **R.**

Ez izan zeure baitan beste jainkorik,
ez dezazula adora jainko arrotzik.

Neu naiz Jauna, zure Jainkoa, Egiptotik atera zintuena. **R.**

BIGARREN IRAKURGAIA

Jesusen bizia guregan agertzen da.

San Paulo Apostoluak Korintoarrei egindako bigarren gutunetik 4, 6-11

«Distira beza argiak ilunpetan» esan zuen Jainkoak berak piztu du argia gure bihotzetan, Jesu Kristoren aurpegian distira egiten duen Jainkoaren aintza argiro ezagut dezagun.

Baina altxor baliotsu hau buztinezko ontzitan daramagu, garbi ager dadin honenbesteko indarra Jainkoarengandik datorrela eta ez guregandik. Alde guztietatik estutzen gaituzte, baina zapaldu ez; larri gaude, baina etsita ez; erasopean bai, baina eskutik utzita ez; lurrera botatzen gaituzte, baina suntsitzen ez; nonahi eta beti Jesusen heriotza daramagu guregan, Jesusen bizia ere guregan ager dadin. Bizi garen bitartean, beti heriotzara garamatzate Jesusengatik, gure izate hilkor honetan Jesusen bizia ere ager dadin.

Jaunak esana.

Aleluia Cf Jn 17,17b.a

Aleluia, aleluia.

Zure mezua egia da, Jauna;

har itzazu zeuretzat egiaren bidez. Aleluia

EBANJELIOA

Larunbataren beraren nagusi da Gizonaren Semea.

+ Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 2, 23-3,6

Behin batean, larunbatez, gari-soro batean zehar zihoan Jesus. Eta ikasleak, bidenabar, galburuak hartzen hasi ziren. Fariseuek esan zioten Jesusi:

–Nola ari dira egiten, larunbatez zilegi ez dena ?

Hark erantzun:

–Ez al duzue inoiz irakurri zer egin zuen Davidek beharaldi batean, bera eta bere lagunak goseak aurkitu zirenean? Nola, Abiatar apaiz nagusi zela, Jainkoaren etxean sartu eta Jaunari eskainiriko ogiak jan zituen, legez apaizek bakarrik jan zitzaketenak, eta nola berarekin zeudenei ere eman zien?

Eta, gainera, esan zien:

–Larunbata gizakiaren onerako egin zuen Jainkoak eta ez gizakia larunbataren onerako. Beraz, larunbataren beraren nagusi da Gizonaren Semea.

Beste behin, Jesus sinagogara joan zen. Bazen han besoa elbarri zeukan gizon bat. Zelatan zegozkion ea larunbatez sendatzen ote zuen, zertan salatuko baitzebiltzan. Jesusek beso-elbarriari esan zion:

–Jaiki eta zatoz hona erdira.

Eta besteei, berriz:

–Larunbatez zer dugu legezko, on egitea ala gaitz egitea, bizia salbatzea ala kentzea?

Haiek, ordea, isilik. Jesusek, inguruko guztiei haserre begiraturik eta beraien setakeriaz mindurik, honela esan zion gizonari:

–Luzatu beso hori.

Hark luzatu, eta sendatu egin zitzaion.

Handik atera orduko, fariseuek Herodesen alderdikoekin elkar hartu zuten Jesusen kontra, nola hilko.

Jaunak esana.

Blog: <https://homiliaspagola.blogspot.com/>